Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko abenduaren 13a, ostirala — 240 — Viernes, a 13 de diciembre de 2024

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ZARAUZKO UDALA

*Udaltzaingoko Ofizialorde plaza barne promozioz eta oposizio-lehiaketa bidez hautatzeko prozesuaren deialdia eta oinarriak.*

2024ko abenduaren 9an Tokiko Gobernu Batzordeak, besteak beste, honakoa erabaki zuen:

*Lehena.* Udaltzaingoko ofizialorde plaza barne promozioz eta oposizio-lehiaketa bidez hautatzeko prozesuaren deialdia eta oinarri espezifikoak onartzea.

*Bigarrena.* Deialdia eta oinarriak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Zarauzko Udalaren webgunean, eta haren laburpen bat *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzea.

Zarautz, 2024ko abenduaren 9a.—Xabier Txurruka Fernandez, alkatea. (9037)

*Karrerako funtzionarioa hautatzeko prozesuaren deialdia eta oinarriak. Lanpostua: Udaltzaingoko ofizialordea.*

*Lehena. Deialdiaren xedea.*

Deialdi honen xedea da Udaltzaingoko Ofizialorde plaza oposizio-lehiaketa bidez eta barne promozioz betetzeko hautaketa-prozesua arautzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 35. artikuluaren arabera, ofizialorde kategoria Ikuskapen Eskalakoa da.

Oposizio-lehiaketa bidezko hautaketa-prozesua osatzeko, prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia egin eta gainditu beharko dira Euskal Herriko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian.

*Bigarrena. Plazaren eta lanpostuaren ezaugarriak.*

Plaza eta lanpostuaren ezaugarriak:

— *Plaza:* Ofizialordea.
*Lanpostua*: Udaltzaingoaren ofizialordea.
*Departamentua*: Udaltzaingoa.
*Eskala*: Administrazio berezia.
*Azpieskala*: Zerbitzu bereziak.
*Taldea*: C1.
*Lanpostu kopurua*: 1.
*Destino osagarria*: 22.
*Osagarri espezifikoa*: 25.956,14 €.
*Hizkuntza-eskakizuna*: 3. hizkuntza eskakizuna (derrigorrezkoa). Derrigorrezkotasun-data: gainditua.
*Asteko ordutegia:* Lanaldia, urte osorako onartzen den egutegiaren araberakoa.
*Lanaldi mota:* Normalean astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara. Noizean behin lanaldi zatitua zerbitzuaren beharrengatik, bilerengatik, etab. Dedikazio berezia eta lanaldi aldakorra, arduraduna ordezkatzen duenean.

*Hirugarrena. Izangaiek bete beharreko baldintzak.*

Udaltzaingoko karrerako funtzionario hauek parte hartu ahal izango dute lehiaketan: eskatzen diren baldintza orokorrak eta

## AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

*Convocatoria y bases del proceso selectivo para el acceso, por promoción interna y concurso-oposición, a una plaza de suboficial de la Policía Municipal.*

Mediante acuerdo de Junto de Gobierno Local de 9 de diciembre de 2024, se adoptaron los siguientes acuerdos:

*Primero.* Aprobar la convocatoria y las bases del proceso selectivo para el acceso, por promoción interna y concurso-oposición, a una plaza de suboficial de la policía municipal.

*Segundo.* Ordenar la publicación de la convocatoria y las bases en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la página web del Ayuntamiento de Zarautz y un extracto del mismo en el *Boletín Oficial del Estado*.

Zarautz, a 9 de diciembre de 2024.—El alcalde, Xabier Txurruka Fernández. (9037)

*Convocatoria y bases para la selección de funcionario de carrera. Puesto de trabajo: Suboficial de la Policía Municipal.*

*Primera. Objeto de la convocatoria.*

La presente convocatoria tiene por objeto regular el proceso selectivo para la provisión, mediante concurso-oposición y promoción interna, de la plaza de Suboficial de la Policía Municipal.

Conforme al artículo 35 del Decreto Legislativo 1/2020, de 22 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Policía del País Vasco, la categoría de suboficial pertenece a la Escala de Inspección.

Este procedimiento de selección se completará con el curso de formación y periodo de prácticas a realizar y superar, en la Academia Vasca de Policía y Emergencias del País Vasco.

*Segunda. Características de la plaza y del puesto.*

Características de plaza y puesto:

— *Plaza*: Suboficial.
*Puesto*: Suboficial de la Policía Local.
*Departamento*: Policía Local.
*Escala*: Administración especial.
*Subescala*: Servicios especiales.
*Grupo*: C1.
*N.º de puestos:* 1.
*Complemento de destino*: 22.
*Complemento específico*: 25.956,14 €.
*Perfil lingüístico:* 3 (obligatorio). Fecha de preceptividad: vencida.
*Dedicación horaria semanal:* Jornada según calendario anual aprobado.
*Tipología de la jornada:* Normalmente de lunes a viernes de 8:00 a 15:00. Eventualmente jornada partida por necesidades del servicio, reuniones, etc. Dedicación especial y jornada variable cuando sustituye al/a la responsable.

*Tercera. Requisitos de las personas aspirantes.*

Podrán participar aquellos que tengan la condición de funcionario/a de carrera de la Policía Local, que reúnan las condi-

EK\CV GAO-I-2024-09037

deialdian jarritakoak betetzen dituztenek eta egoera hauetako batean daudenak: zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan, haurrak zaintzeko eszedentzian, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bateginaren 1/2020 Legearen 86. artikuluan aurreikusitako eszedentzian.

Kasu guztietan, nahitaez baldintza hauek bete behar dira gutxienez:

1. Karrerako funtzionarioa izanik, zerbitzu aktiboko egoeran egotea Zarauzko Udaltzaingoko Agente Lehenen edo Agente kategorian, eta lau urtez egiaz eskainitako zerbitzuak beteta izatea kategoria horretan.

Egiaz betetako zerbitzuen aldia 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 78.4 artikuluaren arabera zenbatuko da (Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina).

2. Arau-hauste larri edo oso larri batengatik Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoaren edo Udaltzaingoaren zerbitzuren batean sartzeko hautaketa-prozesuetatik baztertuta ez egotea, salbu eta preskripzio-epearen baliokidea den denbora igaro bada, baztertzeko adierazpenaren datatik kontatzen hasita.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Hautatu eta Prestatzeko Araudia onartzen duen Dekretua laugarrenez aldatzen duen azaroaren 22ko 142/2022 Dekretuan agertzen den bazterketa medikuen taulan sartuta ez egotea.

Hautaketa-prozesua gainditu ondoren, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, azterketa mediko bat egingo da Udalbatzak erabakitako zentro batean, lanposturako gaitasuna egiaztatzeko. Kargua hartzeko, baldintza hori bete beharko da. Lanpostuaren funtzionamendu egokia bermatzeko behar adina froga mediko egingo dira.

4. Dolozko delituagatik kondenatua ez izatea, administrazio publiko baten zerbitzutik baztertuta ez egotea, eta funtzio publikoak betetzeko desgaituta edo etenaldian ez egotea. Dena den, birgaitzeko onura aplikatu ahal izango da, arau penalen eta administratiboen arabera.

5. Eskatzailearen adierazpen bidez, armak eramateko eta, hala badagokio, erabiltzeko konpromisoa hartzea.

6. B motako gidabaimena edo baliokidea izatea.

7. Batxilergoa, titulu teknikoa edo baliokidea edukitzea, edo goragoko beste edozein.

8. Lanpostuak derrigorrez jarrita duen euskarazko 3. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea egiaztatzea; azken hori, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatzeko eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratura egokitzeko indarrean dagoen araudiak dioenaren arabera.

9. C1 azpitaldeko plazak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa ordaintzea: 8,13 €.

Oinarri hauetan aipatutako baldintza guztiak bete behar dira eskabideak aurkezteko epearen bukaeran –hizkuntza-eskakizuna izan ezik–, eta egoera horri eutsi egin beharko zaio karrerako funtzionario izendatua izan arte.

Hautaketa-prozesuaren edozein unetan –prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia barne– epaimahai kalifikatzaileak jakiten badu parte-hartzaileetako batek ez dituela betetzen deialdian parte hartzeko eskatzen diren baldintzak edo eta lege iruzurra egin duela jakin bada, pertsona hori hautaketa-prozesutik kanpo utziko da, aldez aurretik entzunda.

*Laugarrena. Argitalpena.*

Hautaketa-prozesuaren deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Zarauzko Udalaren web-orrian argitaratuko da.

Hautaketa-prozesuan zehar, Zarauzko Udalaren web-orrian argitaratuko da prozesuaren garapenari buruzko informazio guztia, jakinarazpen ondorioetarako.

ciones generales exigidas y los requisitos establecidos en la convocatoria, y que se hallen en situación de servicio activo, servicios especiales, excedencia para el cuidado de hijos/as y excedencia prevista en el artículo 86 de la Ley 1/2020, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Policía del País Vasco.

En todos los casos, se tendrán que cumplir obligatoriamente las siguientes condiciones:

1. Siendo funcionario/a de carrera, estar en situación de servicio activo en la categoría de agente primero o agente de la Policía Local de Zarautz, y haber completado 4 años de servicios efectivos perteneciendo a dicha categoría.

A los efectos de cómputo del tiempo de servicios efectivos se estará a lo dispuesto en el artículo 78.4 del Decreto Legislativo 1/2020, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Policía del País Vasco.

2. No haber sido excluido/a de un proceso selectivo para el ingreso en algún cuerpo de Policía del País Vasco por la comisión de una falta grave o muy grave, salvo que hubiera transcurrido un periodo de tiempo equivalente a su plazo de prescripción contado desde la fecha de declaración de la exclusión.

3. No estar incurso/a en el cuadro de exclusiones médicas que se determinan en el Decreto 142/2022, de 22 de noviembre, de cuarta modificación del decreto por el que se aprueba el Reglamento de Selección y Formación de la Policía del País Vasco.

Una vez superado el proceso de selección, se realizará un reconocimiento médico en un centro aprobado por la Corporación, para acreditar la capacitación para el puesto de trabajo, según lo establecido por la normativa en vigor. Dicho requisito será de obligado cumplimiento para la toma de posesión del cargo. Se realizarán cuantas pruebas médicas sean necesarias para garantizar el correcto funcionamiento del puesto de trabajo.

4. No haber sido condenado/a por delito doloso, ni separado/a del servicio de la Administración Pública, ni hallarse inhabilitada/o para el ejercicio de funciones públicas, salvo que se hubiera obtenido la cancelación de la sanción impuesta.

5. Compromiso, mediante declaración de la persona solicitante, de portar y, en su caso, utilizar las armas.

6. Disponer de permiso de conducir B o equivalente.

7. Título de Bachiller, Título Técnico o equivalente, u otro superior.

8. Acreditar estar en posesión de Perfil Lingüístico 3 de euskera o equivalente, este último de conformidad con la normativa vigente de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y adecuación de los mismos al Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

9. Abonar la tasa de inscripción de las convocatorias de selección de las plazas del subgrupo C1: 8,13 €.

Los requisitos enumerados en estas bases –excepto el perfil lingüístico– deberán poseerse en el momento de finalizar el plazo de presentación de instancias y mantenerlos hasta el momento del nombramiento como funcionario de carrera.

Si en cualquier momento del procedimiento selectivo –incluso en el curso de formación y el periodo de prácticas– llegara a conocimiento del tribunal calificador que alguna persona aspirante carece de los requisitos exigidos para tomar parte en la convocatoria o ha realizado fraude de ley, la excluirá del proceso selectivo, previa audiencia a la persona interesada.

*Cuarta. Publicación.*

La convocatoria del proceso selectivo se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página web del Ayuntamiento de Zarautz.

Durante el proceso selectivo se publicará en la página web del Ayuntamiento de Zarautz toda la información relativa al desarrollo del proceso, a efectos de notificación.

*Bosgarrena. Eskabideak aurkeztea.*

5.1. Prozesuan onartzea:

Hautaketa-prozesuan onartua izateko eta, hala badagokio, parte hartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

1) Eskabidearen atal guztiak betetzea.

2) Epearen barruan aurkeztea, eta

3) Langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatik ordaindu beharreko tasak ordaintzea.

5.2. Eskabideak aurkezteko era:

5.2.1. Eskabideak deialdiaren fitxan argitaratutako inprimakiaren arabera egingo dira egoitza elektronikoan, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta tasa ordainduz formalizatu beharko dira.

Aurrekoaz gain, eredu ofizial eta normalizatu bat ere egongo da, Udalaren web-orrian eskuragarri egongo dena, eskabideak aurkezteko epea irekitzen den unean.

Paperezko inprimakia eta inprimaki elektronikoa berdinak izango dira, eta edukiak guztiz zehatza izan beharko du.

Lehiaketa-fasean baloratuko diren merituen datuak ere eman beharko dira. Beraz, ez dira baloratuko eskabidean behar bezala jaso ez diren merituak. Nolanahi ere, hautagaiak puntuazioa kalkulatu beharko du, plazaren oinarri espezifikoetan jarritako merituen baremoa aplikatuta. Eskabideak aurkezteko epea amaitu aurreko merituak bakarrik baloratuko dira. Alde horretatik, ezin izango da etorkizuneko meriturik alegatu, ezta data horren ondoren egiaztatzen denik ere.

Eskabidean zehaztu egin beharko da zein hizkuntzatan egin nahi diren oposizioko probak, gaztelaniaz edo euskaraz. Hala ere, azterketa gazteleraz egitea aukeratzen dutenek, azterketako zati bat euskaraz egin beharko dute nahitaez.

5.2.2. Eskabideak behar bezala beteta aurkeztuko dira honako leku hauetako batean:

a) Eskabide elektronikoa egoitza elektronikoan: Aurkezpen elektronikoa aukeratuz gero, egoitzan onartutako identifikazioko eta sinadura elektronikorako bitarteko bat izan beharko du.

b) Aurrez aurreko eskabidea: Herritarren Arreta Zerbitzuan (Kale Nagusia 29, 20800 Zarautz).

c) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako edozein lekutan ere aurkeztu ahal izango dira.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 14.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, administrazioarekin elektronikoki harremanetan jartzera behartuta dauden langileen kasuan, aurkezpena egoitza elektronikoan egingo da.

5.2.3. Antzematen diren egitatezko akatsak edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edota interesdunak hala eskatuta.

5.3. Tasaren ordainketa:

5.3.1. Hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izateko, hautaketa-prozesuan parte hartzeko tasaren kontzeptu gisa ordenantza fiskaletan xedatutako kopurua ordaindu beharko dute izangaiek.

Tasa nominalki ordainduko da, eta autolikidazio-erregimenean eskatuko da; diru-sarrera honako erakunde laguntzaile hauetako batean egin ahal izango da:

— Kutxabank.

— Laboral Kutxa.

*Quinta. Presentación de solicitudes.*

5.1. Admisión al proceso:

Para la admisión y, en su caso, tomar parte en el proceso selectivo, se deberá:

1) Cumplimentar la solicitud en todos sus apartados.

2) Presentarla en plazo y

3) Abonar las tasas por inscripción en la convocatoria para la selección de personal.

5.2. Forma de presentación de solicitudes:

5.2.1. Las instancias se ajustarán según impreso publicado en la ficha de la convocatoria en la sede electrónica de acuerdo con lo previsto en el artículo 66.6 de la Ley 39/2015 y se deberán formalizar con el pago de la tasa.

Además de lo anterior también se dispondrá de un modelo oficial y normalizado que se encontrará disponible en la página web del Ayuntamiento en el momento de apertura del plazo para la presentación de instancias.

El formulario en papel será idéntico al formulario electrónico y deberá cumplimentarse con la precisión que exige su contenido.

En la solicitud deberán alegar los datos correspondientes a los méritos que se desean valorar en la fase de concurso. A estos efectos, no se valorarán los méritos que no se hayan alegado adecuadamente en la instancia. En todo caso, la persona aspirante deberá calcular la puntuación aplicando el baremo de méritos establecido en las bases específicas correspondientes a la plaza. Únicamente se valorarán los méritos referidos a circunstancias previas al día de cierre del plazo de presentación de instancias. En este sentido, no resultará posible alegar méritos futuros o cuya acreditación se produzca con posterioridad a dicha fecha.

En las solicitudes deberá indicarse el idioma en el que desean realizar las pruebas selectivas (euskera o castellano). A su vez, aunque las personas aspirantes elijan realizar el examen en castellano, obligatoriamente, una parte del examen lo tendrán que realizar en euskera.

5.2.2. Las instancias se presentarán debidamente cumplimentadas en alguno de los siguientes lugares:

a) Solicitud electrónica en sede electrónica: En caso de optar por la presentación electrónica deberá disponer de un medio de identificación y firma electrónica admitidos en la sede.

b) Solicitud presencial: En el Servicio de Atención Ciudadana del Ayuntamiento (Kale Nagusia 29).

c) Podrán también presentarse en cualquiera de los lugares que determina el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

En el caso de las personas obligadas a relacionarse electrónicamente con la administración, según lo dispuesto en el artículo 14.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la presentación se hará en Sede Electrónica.

5.2.3. Los errores de hecho que pudieran advertirse podrán subsanarse en cualquier momento, de oficio o a petición de la persona interesada.

5.3. Pago de la tasa:

5.3.1. Para poder participar en cualquier proceso selectivo los/as aspirantes deberán abonar, en concepto de tasa por participación en el proceso selectivo, la cantidad que en su momento dispongan las correspondientes ordenanzas fiscales.

La tasa se abonará de forma nominal y se exigirá en régimen de autoliquidación; el ingreso se podrá realizar a través de cualquiera de las entidades colaboradoras:

— Kutxabank.

— Laboral Kutxa.

EK\CV GAO-I-2024-09037

— Banco Sabadell.

— Abanca.

— BBVA

— Banco Santander.

— Caixabank.

— Rural Kutxa.

5.3.2. Eskaera-orria epe barruan eta ondo aurkeztuta ere, ez bada behar bezala egiaztatzen tasa ordaindu dela eskaerak erregistroan aurkezteko epearen barruan, eskaera hori ez aurkeztutzat emango da ondorio guztietarako, eta izangaia hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da. Eskaera-orriak aurkezteko epea amaitutakoan, argitara emango da egoera horretan daudenen zerrenda.

Era berean, azterketa-eskubidea ordainduta ere, izangaia behartuta dago parte hartzeko eskaera-orria epe barruan eta ondo aurkeztera, oinarri orokor hauetan aurreikusten dena kontuan hartuz.

5.4. Aurkezteko epea:

Parte hartzeko eskaerak gehienez ere hogei egun baliodunneko epean aurkeztu ahal izango dira, deialdiaren laburpenaren iragarkia *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

5.5. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Hautaketa-prozesuan onartua izateko eta parte hartzeko, ez da beharrezkoa izango eskabidearekin batera dokumenturik aurkeztea; nahikoa izango da hautagaiek, beren erantzukizunpean, adieraztea eskabidea aurkezteko epea amaitzen den egunean betetzen dituztela prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak.

Erantzukizunpeko adierazpentzat hartuko da eskabidean hautagaiak adieraztea parte hartzeko baldintzak betetzen dituela eta bertan alegatutako merituak badituela, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 64. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Eskatutako hizkuntza-eskakizuna daukanak eta horregatik euskarako frogarik egin behar ez duenak hala adierazi beharko du eskaeran.

Alkatetzak edo Epaimahai Kalifikatzaileak berariaz eskatutako pertsonek soilik egiaztatu beharko dituzte, dagokion unean eta agiri bidez, parte hartzeko baldintzak eta eskabidean alegatutako merituak.

Ondorio horietarako, eskabidean baimena eman ahal izango da, Udalak dagokion unean eta zuzenean egiaztatu ditzan honako datu hauek:

— Poliziaren Zuzendaritza Nagusia: nortasun-datuen kontsulta eta egiaztatzea.

— Eusko Jaurlaritza: euskararen hizkuntza-eskakizunak.

— Justizia ministerioa: aurrekari penalik eta sexu-delituen ondoriozko aurrekaririk ez izatea (adingabeekin lan egiten denean bakarrik).

— Hezkuntza Ministerioa: Unibertsitateaz kanpoko titulu ofizialak.

— Hezkuntza Ministerioa: Unibertsitateko titulu ofizialak.

— Trafiko Zuzendaritza Nagusia: gidabaimenak (lanpostua eskuratzeko baldintza direnean).

— Eusko Jaurlaritza: IT Txartelak.

— Eusko Jaurlaritza: ikastaroen ziurtagiriak (IVAP).

— Banco Sabadell.

— Abanca.

— BBVA

— Banco Santander.

— Caixabank.

— Rural Kutxa.

5.3.2. Cuando, incluso habiéndose presentado la solicitud correspondiente en plazo y forma, no quede convenientemente acreditada la realización del pago de la tasa dentro del plazo de registro de solicitudes, dicha solicitud se reputará no presentada a todos los efectos y supondrá la exclusión del proceso selectivo. Una vez finalizado el plazo de solicitudes se publicará la relación de las que se encuentren en esta situación.

De la misma manera, el abono de los derechos de examen no eximirá de la obligación de presentación, en tiempo y forma, de la solicitud correspondiente para tomar parte en este proceso selectivo, de acuerdo a lo previsto en las presentes bases generales.

5.4. Plazo de presentación:

Las solicitudes de participación podrán presentarse en un plazo máximo de veinte días hábiles contados a partir del día siguiente al de la publicación del anuncio del extracto de la convocatoria en el *Boletín Oficial del Estado*.

5.5. Documentación a presentar con la solicitud:

Para ser admitido/a y tomar parte en el proceso selectivo no será preciso presentar ningún documento con la solicitud, bastando con que los/as aspirantes, bajo su responsabilidad, manifiesten que a la fecha de expiración del plazo de presentación reúnen todos y cada uno de los requisitos exigidos para participar en el proceso.

La manifestación en la solicitud de participación de que la persona aspirante cumple los requisitos de participación y ostenta los méritos alegados en la misma tendrá la consideración de declaración responsable en los términos del artículo 64 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Quien posea el perfil lingüístico exigido y por ello no deba realizar la prueba de euskera deberá indicarlo así en la solicitud.

La acreditación documental de los requisitos de participación y de los méritos alegados en la solicitud sólo deberán realizarla en el momento que corresponda aquellas personas expresamente requeridas para ello que determine la Alcaldía o el Tribunal Calificador.

A dichos efectos, en la solicitud se podrá dar consentimiento para que, en el momento que corresponda, el Ayuntamiento de Zarautz pueda verificar directamente los siguientes datos:

— Dirección General de la Policía: Consulta y verificación de datos de identidad.

— Gobierno Vasco: Perfiles de certificaciones de euskera.

— Ministerio de Justicia: Inexistencia antecedentes penales y antecedentes por delitos sexuales (exclusivamente en el caso de trabajo con menores).

— Ministerio de Educación: Títulos no universitarios oficiales.

— Ministerio de Educación: Títulos universitarios oficiales.

— Dirección General de Tráfico: Carnets de conducir (cuando sean requisito para acceder al puesto).

— Gobierno Vasco: IT Txartela.

— Gobierno Vasco: Certificados de Cursos (IVAP).

EK\CV GAO-I-2024-09037

Kontsulta hori datu-bitartekaritzako plataformen edo beste sistema elektroniko batzuen bidez egingo da, lege hauek kontuan izanda: urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.2 artikuluan xedatutakoa (edozein administraziok egindako dokumentuak ez aurkezteko eskubideari dagokionez); urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 155. artikuluan xedatutakoa; eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoak, zortzigarren xedapen gehigarrian adierazitakoa.

Egiaztatze horri uko egiteko aukera izango du eskatzaileak. Kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Ez da beharrezkoa izango deialdia egin duen Udalaren esku dauden dokumentuak aurkeztea, betiere noiz eta zein bulegotan entregatu ziren adierazten bada.

Dokumentu horiek fotokopiak izango dira, eta honako hauek izan beharko dira gutxienez eta ezinbestekoak, agiri mota eta edukiari dagokionez:

1. Lan edo zerbitzuen esperientzia:

Beste administrazio batzuetan egindako zerbitzuak ziurtagirien bidez egiaztatu beharko dira. Horretarako eskumena duten organoek eginak izango dira, eta bertan honako hauek zehaztuko dira: enplegu-harremanaren iraupena, dedikazioaren portzentajea eta betetako lanpostuaren funtzioak.

Zarauzko Udalean egindako zerbitzuak ez dira dokumentu bidez egiaztatu behar. Hautagai bakoitzaren espedientean ageri diren datuen arabera ebaluatuko dira.

2. Prestakuntza:

Erakunde ofizialek edo homologatutakoek emandako ikastaroak izango dira, eta, baloratuak izateko informazio hau zehaztuko dute: ikastaroaren gaitegia edo edukia, prestakuntza-ekintzen iraupena ordutan eta data.

Informazio hori jasotzen ez duten agiriak ez dira kontuan izango.

*Seigarrena. Izangaiak onartzea.*

6.1. Izangaiek, onartuak izateko, eskabidean adierazi beharko dute betetzen dituztela parte hartzeko baldintza guztiak. Deklarazio hori izangai bakoitzaren erantzukizunpean egingo da, eta onartutakoen zerrendan agertzeak ez du esan nahiko baldintza horiek betetzen dituela aitortzen zaionik; beraz, Udalak aukera izango du izangaia hautaketa-prozesutik kanpo uzteko, exijitzen zaion unean baldintzak betetzen dituela egiaztatzen ez badu.

6.2. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, udal organo eskudunak onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartuko du, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko web-orrian (www.zarautz.eus) argitaratuko da. 10 egun balioduneko epea emango da baztertzea eragin duten akatsak edo omisioak zuzentzeko, edo zerrenda horren aurkako erreklamazioak aurkezteko.

Behin-behineko zerrenda automatikoki behin betikotzat joko da erreklamaziorik aurkezten ez bada edo ofiziozko akatsik antzemateen ez bada, eta Udalaren web-orrian argitaratuko da.

Erreklamazioak aurkeztuz gero, onartu edo ezetsi egingo dira beste ebazpen baten bidez. Ebazpen horren bitartez behin betiko zerrenda onartuko da, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web-orrian argitaratuko da.

6.3. Behin betiko kanporatutako izangaiek berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote ebazpena eman zuen organo berari, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabeteko epean, edo zuzenean inpugnatu ahal izango dute, bi hilabeteko epean, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

Dicha consulta se realizará a través de las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos de acuerdo con el artículo 28.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en relación con el derecho a no aportar los documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración y en virtud de lo establecido en el artículo 155 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y Disposición Adicional Octava de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

El solicitante tendrá opción a oponerse a dicha verificación, en cuyo caso deberá presentar la documentación pertinente.

No será preciso aportar los documentos que ya estuvieran en poder del Ayuntamiento convocante, siempre y cuando se haga constar la fecha y la dependencia en la que fueron entregados.

Estos documentos serán fotocopias y al menos serán obligatorios los siguientes, en cuanto a su tipo y contenido:

1. Experiencia en labores o servicios:

La experiencia en otras administraciones se acreditará con la presentación de certificados expedidos por órganos competentes para ello, especificándose la duración de la relación de empleo, el porcentaje de dedicación y las labores realizadas.

Los servicios prestados en el Ayuntamiento de Zarautz no deberán ser acreditados documentalmente. Se evaluarán en función de los datos que consten en el expediente de cada candidato/a.

2. Formación:

Serán cursos impartidos por organismos oficiales u homologados, que especificarán para su valoración el temario o contenido del curso, la duración en horas de las acciones formativas y la fecha.

Los documentos que no contengan esta información no se tendrán en cuenta.

*Sexta. Admisión de aspirantes.*

6.1. Las personas aspirantes, para ser admitidas, deberán declarar en la instancia que cumplen todos los requisitos de participación. Dicha declaración será bajo la responsabilidad de cada aspirante y el hecho de figurar en la relación de admitidos/as no prejuzga que se le reconozca la posesión de los citados requisitos, por lo que el Ayuntamiento se reserva la posibilidad de excluir al/a la aspirante del proceso selectivo en caso de que no acredite el cumplimiento de los requisitos en el momento en que se le exija.

6.2. Expirado el plazo de presentación de instancias, el órgano municipal competente aprobará la lista provisional de aspirantes admitidos/as y excluidos/ as, que se hará pública en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página web del Ayuntamiento (www.zarautz.eus), concediéndose un plazo de 10 días hábiles para la subsanación de defectos u omisiones que hubieran motivado la exclusión, o para plantear reclamaciones contra dicha lista.

La lista provisional se entenderá automáticamente elevada a definitiva si no se presentan reclamaciones o no se aprecian errores de oficio, y se publicará en la página web del Ayuntamiento.

Si se presentan reclamaciones, serán estimadas o desestimadas mediante una nueva resolución por la que se aprobará la lista definitiva, que se hará pública en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página web del Ayuntamiento.

6.3. Las personas aspirantes definitivamente excluidas podrán interponer recurso de reposición ante el mismo órgano que dictó la resolución en el plazo de un mes desde su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, o impugnarla directamente, en el plazo de dos meses, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián.

EK\CV GAO-I-2024-09037

6.4. Behin-behineko zerrendetatik kanporatuta geratu eta epe barruan zerrenda horien aurkako erreklamazioa aurkezten duten izangaiak kautelaz aurkeztu ahal izango dira probak egitera, planteatutako erreklamazioa egun horretarako ebatzi ez bada.

Era berean, behin betiko zerrendetatik kanpo geratu direnak ere, kautelaz aurkeztu ahal izango dira probak egitera, betiere kanporatua izanaren aurkako errekurtsoa aurkeztuta dutela egiaztatzen badute, eta erreklamazioa egun horretarako erabaki ez bada.

*Zazpigarrena. Izaera pertsonaleko datuen babesa.*

7.1. Hautagaiek eskabidean emandako informazio guztia tratamendu-jarduera batean sartuko da, eta hautaketa-prozesua kudeatzeko baino ez da erabiliko. Tratamendu-jarduera horren erabilera eta funtzionamendua lege hauetan aurreikusitakora egokituko dira: Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea.

7.2. Hautaketa-prozesuak publizitate, berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioen mende jartzeari buruzko agindu legalaren arabera, izangaiek hautaketa-prozesu batean parte hartzeko eskaera-orria aurkezteak berekin dakar baimena ematea aldizkari ofizialetan, Udalaren web-orrian eta hautaketa-prozesua arautzen duten oinarriak aplikatuz erabiltzen den beste edozein baliabidetan egiten diren argitalpenetan identifikatuak izateko.

7.3. Hautaketa-prozesuan parte hartzeak berekin dakar hautagaiek hautaketa-prozesuan zehar aurkeztu behar duten dokumentazioaren tratamendua egitea.

7.4. Bestalde, izangaiek berariazko baimena eman beharko dute parte hartzeko eskaeran, hautaketa-prozesu zehatzetik sor daitezkeen lan-poltsak kudeatzeko datu pertsonalen tratamendua egin dadin, eta baita beren datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko ere, helburu bakarra izanik izangaiek administrazio publiko horietako enplegu eskaintzak jaso ahal izatea, legez aurreikusi bezala; eta izangaiaren onarpena berariaz jasotzen ez bada, lagapenaren aurka dagoela ulertuko da.

7.5. Zarauzko Udala da tratamenduaren organo arduraduna.

7.6. Interesdunak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta datuon tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko eskubidea ere, Udalaren helbidera edo dbo-dpd@zarautz.eus helbide elektronikora komunikazio bat bidalita. Halaber, informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu gardentasun-ataria: www.zarautz.eus/eu/datu-pertsonalen-babesa.

*Zortzigarrena. Epaimahai kalifikatzailea.*

8.1. Osaera.

Deitutako hautaketa-prozesuaren epaimahai kalifikatzailea honako hauei jarraikiz osatuko da: 315/1994 Dekretua, uztailaren 19koa, Euskal Herriko Poliziaren hautespen- eta prestakuntza araudia onartzen duena (22 artikulutik 27ra) eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoarena.

Epaimahaia nagusiki teknikoa izango da, eta deitutako lanpostuan sartzeko eskatzen den titulazio berdina edo altuagoa izan beharko dute kideek.

Epaimahai Kalifikatzailea titularrek eta ordezkoek osatuko dute, eta horien izendapena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web-orrian argitaratuko da. Epaimahaia honela osatuko da:

6.4. Las personas excluidas de las listas provisionales que hubieran presentado reclamación en plazo contra las mismas, podrán presentarse con carácter cautelar a la realización de las pruebas, si para dicha fecha no se ha resuelto la reclamación planteada.

Asimismo, las personas excluidas de las listas definitivas podrán presentarse a la realización de las pruebas con carácter cautelar, siempre y cuando acrediten haber presentado el oportuno recurso contra su exclusión, y si para dicha fecha no se ha resuelto el mismo.

*Séptima. Protección de datos de carácter personal.*

7.1. Toda la información facilitada por el personal aspirante en la solicitud será incluida en una actividad de tratamiento cuyo uso se limitará a la gestión del proceso selectivo. El uso y funcionamiento de esta actividad de tratamiento se ajustará a las previsiones de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales y de la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de ficheros de datos de carácter personal de titularidad pública y de creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos.

7.2. En virtud del mandato legal relativo al sometimiento de los procesos de selección a los principios de publicidad, igualdad, mérito y capacidad, la presentación por los/as aspirantes del formulario de solicitud para participar en un proceso selectivo conlleva su identificación en las publicaciones procedentes que se lleven a cabo en los boletines oficiales, tablones de anuncios, en la página web del Ayuntamiento y en cualquier otro medio que se utilice en aplicación de las bases reguladoras del proceso selectivo.

7.3. La participación en el proceso selectivo también implica el tratamiento de la documentación que han de aportar los/as aspirantes en el curso del procedimiento de selección.

7.4. Por su parte, en la solicitud de participación se requerirá el consentimiento expreso de los/as aspirantes para aceptar el tratamiento de los datos personales para la gestión de las bolsas de trabajo que pudieran derivar del concreto proceso selectivo, así como para aceptar la cesión de sus datos a otras administraciones públicas, a los únicos efectos de que los/as aspirantes puedan recibir ofertas de empleo de esas otras administraciones públicas en los términos legalmente previstos, considerándose, de no constar expresamente la aceptación del/la aspirante, que se opone a dicha cesión.

7.5. El órgano responsable del tratamiento es el Ayuntamiento de Zarautz.

7.6. La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento mediante el envío de una comunicación a la dirección del Ayuntamiento o al correo electrónico dbo-dpd@zarautz.org, así como ampliar información consultando en el portal de transparencia www.zarautz.eus/es/datu-pertsonalen-babesa.

*Octava. Tribunal calificador.*

8.1. Composición.

El tribunal calificador del proceso selectivo convocado, se constituirá conforme a lo señalado en los artículos 22 a 27 del Decreto 315/1994, de 19 de julio, por el que se aprueba el reglamento de selección y formación de la Policía del País Vasco, y de acuerdo con lo establecido en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Su composición será predominantemente técnica y las personas integrantes deberán poseer titulación igual o superior a la exigida para el acceso a la plaza convocada.

El tribunal calificador estará compuesto por integrantes titulares y suplentes, cuya designación será publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página web del Ayuntamiento, quedando constituido de la siguiente manera:

EK\CV GAO-I-2024-09037

Mahaiburua:

— Zarauzko edo beste administrazio bateko karrerako funtzionario bat.

Kideak:

— Poliziaren Euskal Akademiak izendatutako kide bat (titularra edo ordezkoa).

— Zarauzko Udaleko edo Euskadiko beste udalerri bateko edo batzuetako udaltzaingoko bi kide.

— Zarauzko Udaleko karrerako funtzionario bat.

— Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko ordezkari bat, titular gisa, eta beste bat, ordezko gisa, soilik euskararen ezagutza baloratzeko.

Idazkaria:

— Zarauzko Udaleko karrerako funtzionario bat.

